



EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2020ko martxoaren 12koa, 2020ko otsailaren 28ko, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak 2020ko lehenengo seihilabetekoan kongresuak eta bilera zientifikoak egiteko laguntzak emateko ebazpena aldatzen duena.

Hezkuntza sailburuaren 2019ko azaroaren 26ko Aginduaren bidez, (2019ko abenduaren 5eko 232 zbk. EHAA), 2020ko lehenengo seihilabetekoan kongresuak eta bilera zientifikoak egiteko laguntzak deia egin zen.

2020ko otsailaren 28ko ebazpenaren bidez, 2020ko lehenengo seihilabetekoan kongresuak eta bilera zientifikoak egiteko laguntzak ebatzi ziren.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Ebazpeneko emandako laguntzen inguruko eranskinean aurkitutako akatsak direla eta

## E B A T Z I D U T

Lehenengoa.- Emandako laguntzen inguruko eranskina aldatzea.

Bigarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 12a

ADOLFO MORAIS EZQUERRO  
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA